

Mondragon Unibertsitateak 2009/2010 ikasturtea hasiko du gaur Eskoriatzan

2009/09/23

Mondragon Unibertsitateak gaur irekiko du ofizialki 2009/2010 ikasturtea eta hori ospatzeko, ekitaldia antolatu dute Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Ikasturtea irekitzeko ekitaldian parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Patxi Lópezek, Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Isabel Celaá Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Idoia Peñacoba Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusiak eta Javier Sotil, Mondragon Unibertsitateko presidente eta Mondragon Korporazioaren ordezkariak. Halaber, ekitaldian izan dira Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olano, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore Iñaki Goirizelaia eta Deustuko Unibertsitateko errektore Jaime Oraá.

Hasierako hitzaldian, Mondragon Unibertsitateko errektoreak unibertsitatearen papera azpimarratu du, "gizartearen giltzarria, inguruneke enpresa-ehuna eraldatzen ari den herrialde baten etorkizun ekonomiko eta sozialaren gakoa" baita. Hain zuzen ere, unibertsitatearen eraldatze-funtzio horren inguruan, Mondragon Unibertsitateko buruak nabarmendu egin du unibertsitateak Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europarrera moldatzeko egin duen lana eta prestakuntzaren arloan nahiz proiektu berrietan unibertsitateek berrikuntza sortzearen garrantzia ere azpimarratu du.

Horixe da Gastronomia Zientzien Fakultatearen kasua, baita Mondragon Unibertsitatea buru duen "Basque Culinary Center" proiektuarena ere, berrikuntzarekin lotutako titulazioei dagokienez.

Unibertsitateek ikertzeko duten erantzukizuna ere ez da ahazten ezta horretarako erakunde eta enpresekin lankidetzan aritu beharra ere.

Egun nazioartean bizi dugun krisi ekonomikoaren arrazoiak eta dimentsioa aztertu ondoren, Iosu Zabalak adierazi du gizartearen etorkizunerako erronkarik handiena enpresa-ehunaren profila eraldatzea dela, etorkizunean fenomeno globalak zalantzarik gabe eragingo dituen aldaketen aurrean babestuago dauden sektore eta posizioetara migratuz eboluzionatzea, alegia. Bere aburuz, erronka horrek herrialde osoari eragiten dio, haien lanaren bidez eta gauzen bilakaeran eragiteko duten gaitasunaren bidez eraldaketaren aitzindari izateko erantzukizuna duten eragile guztiei. "Eta, jakina, unibertsitatea eragile horietako bat da" erantsi du. "Agian ez da garrantzitsuena izango, baina bada oso garrantzitsua eta guztiz nahitaezkoa, eraldaketari ekiten lagunduko baitu."

Tituluak moldatuta

Mondragon Unibertsitateak moldatu egin ditu jada titulazioak Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europarrera, ikasleak eraldatu eta haien prestakuntza XXI. mendeko beharretara egokitzeko konpromiso irmoarekin. Horrela bada, ikasturte honetan titulazioak Esparru Europarrera moldatu dituen lehen euskal unibertsitatea izan ondoren, unibertsitateak jo zaion erronkari eutsi eta lau gradu berri erantsiko dizkio bere eskaintza akademikoari. Hortaz, 11 gradu-titulu emango ditu, eta bigarren zikloko beste zortzi.

Zehazki, hauek dira aurtengo ikasturtean emango diren titulazio berriak; Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEB); Ikus-entzunezko Komunikazioa; Haur Hezkuntza; Lehen Hezkuntza eta Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza.

Graduko titulu horiek joan den urtean emandakoei gehitzen zaizkie, alegia:

- Ingeniaritza Mekanikoa



- Ingeniaritza Elektronikoa Industrialia
- Antolamendu Industrialeko Ingeniaritza
- Ingeniaritza Informatikoa
- Diseinu Industrialeko eta Produktuen Garapeneko Ingeniaritza
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza

Eskaintza osatzeko, graduondoko beste 24 titulu daude, besteak beste, Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritzako masterra, MBA Executive masterra, Automobilismo Lehiaketetarako Espezializazio Teknikoko masterra (METCA), PMP egiaztatze-programa nahiz Surfaren eta Irristatze Kirolen Marketin eta Managementeko masterra, estatuan bakarra.

2009-2010 ikasturtean Europara moldatutako masterrak:

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako masterra.
- Portaera Mekanikoko eta Materialetako masterra.
- Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritzako masterra.
- Hezkuntza Trebakuntzako masterra.
- MBA Enpresa Zuzendaritzako masterra.
- Enpresa Kooperatiboen Kudeaketako masterra.

Memoria akademikoa

Datuak aztertuz, 2008/2009 ikasturtean unibertsitate honetan 3.494 ikasle matrikulatu zirela ikusten da. Horietatik, 3.099k gradu-ikasketak egin zituzten eta geratzen diren 395ek graduondokoetan eta hirugarren zikloetan matrikulatu ziren. Nabarmenezkoa da doktoretza-programetako matrikulazioen igoera, 149ra iritsi zena, hau da, aurreko ikasturtean baino %13 gehiago.

I+G jarduerari helduz, unibertsitatearen helburua ezagutza berrien sorkuntzarako joatea da eta xede-esparruan aplikagarritasuna bilatzearen aldeko apustua egin du ematen diren ikasketen prestakuntzari dagokionez nahiz erakunde eta enpresei ematen dizkien berrikuntza-zerbitzuei dagokienez. Azken batean, hezkuntzaren kalitatea handitu eta gizarte konpromisoa betetzeko erarik eraginkorra unibertsitatearen hiru jarduerak, alegia, hezkuntza, ikerketa eta transferentzia uztartzea da gure ereduaren.

Mondragon Unibertsitatearen aplikatzen den elkarlaneko ikerketa ereduaren arabera, hiru eragile garrantzitsu hauen elkarlana lerrokatzen da ikerketarekin: unibertsitatearena, teknologia-zentroena eta enpresena. Lerrokatze horren bidez, ikerketa bikainerako beharrezkoa den masa kritikoa ikerlaria sortzen da eta unibertsitate nahiz enpresen arteko gertutasuna handitzen, biak ala biak funtsezko faktore baitira berrikuntza nahiz etorkizuneko ikerlarien prestakuntza bultzatzeko.

Filosofia horren ildotik, 2008/2009 ikasturtean unibertsitateak dauzkan 10 ikerketa-lerroetan ikerketa jarduerak indartu dituelarik, irakasleriak denboraren %35 ematen du I+G+b lanetan. Ikerketa-aktibitate horren ondorioz, hirugarren zikloak ere bultzakada izan du eta, ondorioz, 21 doktoretza-tesi berri aurkeztu dira, aurreko ikasturtean baino bi aldiz gehiago.

Emaitza bikainak

Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europarra ezarri ondorengo lehen urtearen ebaluazioan emaitza bikainak ikusi dira. Zehazkiago, ingeniariaren kasuan, ikasleen %90 gainditu zuen, batez ere, ebaluazio jarraituari eta irakasleriaren tutoretza etengaberi esker.

Horrela, Mendeberrri proiektuarekin duela zazpi urte hezkuntza-eredu berri baten alde egindako apustuaren uzta jasotzen du unibertsitateak. Proiektua Esparru Europarreko baldintzekin bat egiten du bete betean eta xedea da ikasleen prestakuntza bikaina izatea. Emaitza: Mundu globalizatuan lan egiteko prestatuta dagoen ikaslea, teknologia berrien nahiz hizkuntzen arloan prestatuagoa eta lan-merkatuan nahitaezkoak diren gaitasuna pertsonalak prestakuntzan zehar barnerratu dituena.

Ereduaren xedea da lan-munduaren erronka berriei aurre egiteko gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalak dituzten pertsonak prestatzea, haien prestakuntza haien gain har dezaketen pertsonak, taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gai direnak. Gainera, eredu hirueleduna da, teknologia berriek ematen dituzten aukerak ahal beste baliatuz, tituludunak gaitasun handia garatzen baitu bere jardueran.

euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bideratzeko.

Hemen eskura ditzakezu jardunaldiko hitzaldiak